



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/08

Deiadar Mendien Eguna domeka honetan, maiatzaren 14an, ospatuko da Solluben

Bizkaiko Batzar Nagusiek kirolean eta kulturaren oinarritutako oso jardunaldi berezia ospatzeko bidea zabalduko dabe barrero. Kondairak esaten dauenez, Gernikan egiten ziran bileretarako deialdia egiteko erabilten zan adarraren soinuak bideratuko dau domeka honetan, maiatzaren 14n, Deiadar Mendien Egunaren XIV. edizinoagaz bat egiten daben pertsonen Sollubeko igoerea. Bizkaiko mendi enblematikoenetakoa dan Sollube izango da ospakizun honen agertokia, aurreko urteetan beste lau deiadar tontorrek (Gorbeia, Ganekogorta, Kolutza eta Oiz) — halan eritxen Antonio de Truebaren kroniketan— izan ziran moduan.

Batzar Nagusiak berreskuratu izanaren 25. urteurrena zala eta 2004. urtean hasitako ohitureari eutsi eta Bizkaiko Batzar Nagusiek aurton be “Deiadar-Mendien igoerea” antolatu dabe, Bizkaiko bost mendi-talderen laguntzagaz: Balmaseda Mendi Taldea, Gailurra (Bilbo), Ganzabal (Lemoa), Sollube 707 (Bermeo) eta Alpino Tabira (Durango). Igoerea goizeko 09:30etan hasiko da Taraska plazatik eta 10:00ean Arrietako udaletxetik. Partaideak Sollubeko tontorrera igoko dabe, eguerdiko 12:00etan adarrak joteko tradizioa leialtasun osoz beteteko, 6 kilometroko igoerea egin ostean.

XIX. gizaldiko kontakizun erromantikoak gogoratuko dituan jardunaldian, beren beregi egun horretarako egin dan eta urtez urte deiadar mendi batetik bestera eroaten dan adarra erabiliko da barrero. Sollube mendian entzungo dan adarraren soinuaren ostean, antolatzaileek jai-gune txiki bat prestatu dabe, eta bertan ez dira faltako musikea, dantzak eta jateko pixka bat.

Aurtongo kirol igoeraren arduradunak izan diran Sollube (Bermeo) eta Tallu Mendizale (Mungialde) taldeek, tradizioa betez, lekukoa emongo deusie Alpino Tabira taldeko ordezkariari, 2018an Oiz mendirako igoerea antolatu daian, deiadar mendietara egiten diran igoeren zikloagaz jarraitzeko.

Deiadar Mendien Eguna martxa klasikoa bilakatu da daborduko mendiaren eta euskal tradizioen zaleentzat. Igazko edizinoan ehunka pertsona joan ziran Gorbealara, Bizkaiko Batzar Nagusiek egindako deialdian parte hartzeko, iraganean, Gernikako aretxaren azpian batzeko eta bizkaitarren arazoez eztabaidatu eta erabagiteko joaten ziran ordezkariari egiten jakezan deialdiak gogoratuz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
08/05/2017

El Día de los Montes Bocineros se celebrará este domingo, 14 de mayo, en el Sollube

Las Juntas Generales de Bizkaia volverán a abrir vía para la celebración de una jornada deportiva y cultural muy especial. El sonido del cuerno con el que dice la leyenda se anunciaba la convocatoria de las reuniones que se celebraban en Gernika en los siglos XIV y XV, orientará este próximo domingo, 14 de mayo, en su ascensión al monte Sollube a las personas que se sumen a la XIV edición del Día de los Montes Bocineros. Una de las cumbres emblemáticas de Bizkaia será escenario de esta celebración después de sucesivas ascensiones, años atrás, a las otras cuatro cumbres bocineras (Gorbeia, Ganekogorta, Kolitza y Oiz), nombradas así en las crónicas de Antonio Trueba.

Las Juntas Generales de Bizkaia, continuando con la tradición iniciada en el año 2004 con motivo del 25 aniversario del restablecimiento de esta institución, llevarán a cabo esta costumbre en colaboración con cinco clubes de montaña: Balmaseda Mendi Taldea, Gailurra (Bilbao), Ganzabal (Lemoa), Sollube 707 (Bermeo) y Alpino Tabira (Durango). En esta edición habrá dos salidas. La marcha partirá a las 9:30 de la mañana desde la plaza Taraska de Bermeo y a las 10:00 horas desde el ayuntamiento de Arrieta. Los participantes ascenderán a la cima del Sollube para cumplir fielmente con la tradición de tañir los cuernos a las 12 del mediodía, tras dejar atrás unos seis kilómetros de ascensión.

En la jornada, recordatorio de relatos románticos del siglo XIX, se utilizará nuevamente un cuerno realizado de forma expresa para este día que se va trasladando anualmente por las distintas cumbres bocineras. Tras el sonido de los cuernos en la cima del Sollube, la organización ha preparado un pequeño espacio festivo en donde no faltará música, danzas y un pequeño aperitivo.

Los clubs de montaña Sollube Taldea (Bermeo) y Tallu Mendizale (Mungialde), encargados de la ascensión deportiva de este año, cederán, como es tradición, el testigo al representante del club Alpino Tabira de Durango para que organicen en 2018 la subida al monte Oiz, continuando así con el ciclo de ascensiones a los montes bocineros.

El Día de los Montes Bocineros se ha convertido ya en una marcha clásica entre los aficionados a la montaña y las tradiciones vascas. En la edición del año pasado, cientos de personas acudieron al Kolitza para participar en la llamada a las Juntas Generales de Bizkaia, rememorando las convocatorias que se hacían en el pasado –según las crónicas de Antonio Trueba- para que los representantes vizcaínos acudieran a reunirse bajo el Árbol de Gernika y tratar los asuntos que en cada momento histórico han ocupado y preocupado a la ciudadanía vizcaína.